



ARANTZA ETA IGANTZIKO INAUTEAK

2026

ttipi-ttapa | 894 zk. | 2026-01-29



ARANTZAKO INAUTEAK

AINHOA
ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

ZERBITZUA
EUSKARAZ

PRIMI
ostatua

Ongi pasa inauteak!

Goiko karrika, 7 · ARANTZA · T. 948 634 052

Burlada
estatu-jatetxea

OKM MENUA ENKARGUZ
Arantzako ilar gorriak
edo
Barazki menestra

Bildots errea leixugarekin
edo
Bildots frijitua leixugarekin

Ettxeko postreak aukeran
Mami | Kremaz beteriko kanutillak
Torrada | Gazta larla

*Kalea + BEZa barne, Edariak kanpo

40 €

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com

ilargi
okindegia

APEZENA

Ongi pasa inauteak!

Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA

Otsailak 5, ortzeguna

08:30ean mozorro zuriek gosaria egingen dute Primi ostatuan. **11:00etan** mozorro zuriak eskolako ikasleekin bilduko dira eta bizkarrekoak paratu ondotik, dantzan ariko dira elkarrekin. **Ondotik** mozorro zuriak baserriz baserri *puxka-puxka* ibiliko dira Beñat eta Andoni Mitxelena musikariekin. **21:30ean** mozorro zuriek afaria egingen dute Primin. **Bertzalde**, emakumeen afaria Burlada jatetxean.

Otsailak 6, ortziralea Buzo Urdinaren eguna

Egun osoan eskolako haurrak Aien-tsa, Azkilarrea eta Bordalarrea auzoetan baserriz baserri eta herrian etxex etxe eskean ibiliko dira. **09:00etan** mozorro zuriak gosaltzeko bilduko dira Primi ostatuan. **11:00etan** mozorro zuriak herrian *puxka-puxka* ibiliko dira. **15:30ean** mozorro zurien bazkaria izanen da Pabloenea jatetxean. **Ilunabarrean** mozorro ttikiei ongietorria egingen diete. **21:00etan** bertso afaria izanen da Sebastian Lizaso eta Xabat Illarregirekin Aterpean. **01:00etatik aitzinera** Belfast taldearekin musika izanen da gorapean.



Otsailak 7, larunbata

Goizean eskolako haurrak baserriz baserri Eguzkialdea auzoan eskean ibiliko dira. **14:00etan** mozorro zuriek bazkaria egingen dute Burlada jatetxean. **Arratsaldean** haur, gazte eta heldu mozorrotuen kalejira izanen da musikariekin eta txokolatea banatuko dute. **Ilunabarrean** mozorro zuriek herri kirol saioa egingen dute frontoian. **Ondotik** mozorro zuriak afaria izanen dute Ekaitza Elkartean. **00:30etik aitzinera** Gabezin taldearekin dantzaldia izanen da gorapean.

Zurekin
DISEINUAK

KANPO NAHIZ BARNE
DISEINURAKO
BEHAR DUZUNA,
ETORRI IKUSTERA
KONPROMISORIK GABE!

Ongi pasa inauteak!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK

Kanttonberri, 3 BERA · Tel: 722 52 14 71

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

«Adin guzietan bada inauteetan ongi pasatzeko aukera»

IÑAKI, BELEN, EDURNE, BEATRIZ, GORKA ETA MAIXE



Zetak taldea, prozesioa, martzianoak, alarde mistoa, drag queenak, Arantzako erietxea, tribu basatia, loreontzia eta lorezaina... Mozorroen zerrenda luzea dute Iñaki Alustiza, Belen Murtuberrria, Edurne Iparragirre, Beatriz Taberna, Gorka Goñi eta Maixe Oskoz aranztarrek. Duela urte batzuk hasi ziren elkarrekin mozorrotzen, «seme-alabak koskortu ahala, inauteak ilusio gehiagorekin hartzen» hasitakoan. Hasieran, «jende gehiago» omen ziren, baina azken urteotan sei dira hasierako ilusio hari kontzen diotenak: «Adin guziek badute bere xarma eta ongi pasatzeko aukera».

Arantzako inauteetan, larunbata da mozorrotzeko eguna, eta horixe da seikotearentzat «egun handia»: «Goizean mozorrotu, bazkal aitzinetik poteoa egin, Pabloenean bazkaldu eta ongi pasatu». Eguneke besta dute gustukoena, «dudarik gabe», eta hala egiten dute: «Goizetik hasten gara, eta ilunabarrean, kanpotik gazteak etorzen direnean, haiei lekua uzten diegu».

Mozorro klase aunitz plantatu dituzte urteotan, baina horien artean «bereziarena prozesioa» izan omen zen: «Ama Bijrin bizidunarekin aterakin. Gainera, konfinamendu aitzinetik izan zen, eta gurea izan zen urte hartako prozesio bakarra». Mozorroak aunitz,

eta anekdotak ere «aunitz». Aitortu dutenez, «batzuk ezin dira kontatu. Baina bat errateagatik, drag queenez egin ginenean, plataformadun zapatekin ibili ginen, eta gutako batek, egun osoa xutik iraun ondotik, eguna bukatzean, etxe atarian *zipotu* eta atakaren kontra zartako latza hartu zuen».

Aurtengo mozorroarekin ere ari dira. «normalean, urte berriarekin hasten gara pentsatzen eta azken momentuan ez badugu aldatzen, aurreko nazioartekoak izanen gara». Edozein moduz, mozorroa bata edo bertzea izan, helburua argi dute: «Ongi pasatzera eta disfrutatzerara ateratzen gara». Eta hori gogoan aterako dira aurreko ere, maite dituztelako inauteak, baita protagonistak ere: «Mozorro zuriak artistak dira eta mozorro beltzak nahitaezko pertsonaiak». Haien irudiko, «mozorro zuriak, mozorro beltzak, jende aunitz erakartzen duen herri nortasun berezia... horiek dira Arantzako inauteak berezi egiten dituztenak».

Bidenabar, «adin guzietako jendea-ri inauteetan parte hartzeko» deia egin diote: «Eguneroko formaltasunetik atera eta paratu edozein zapel, *peluka* edo zapi eta bizia eman buruari eta gorputzari. Inauteak dira eta mozorroak mozorro, bertzerik gabe». Beraz, «elkar errespetatu eta ongi pasatu!».

I.M. RRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052
ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Ongi pasatu inauteetan!

A
aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

ARANTZAKO UDALAK
inauteri zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

IGANTZIKO INAUTEAK



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



IGANTZIKO UDALAK
inaute zoriontsuak
opa ditzkizue igantziar
eta bisitari guztiei



ORAIN erran.
BUS
KLIK BAKARREAN

Zer eskaintzen du Erran aplikazioak?

- ALBISTEAK
- 0km GIDA
- AGENDA
- KIDEN TXOKOA

DESKARGATU

Google Play | App Store



Otsailak 6, ortziralea

09:00 aldera bilduta, egun osoan gazteak etxe etxe eskean ibiliko dira, musikarien laguntzarekin. **17:00etan** guraso elkarteak antolatuta, Mugi Dubi Doo ikuskizuna (dantzak, musika, jokoak, malabareak...). **Ondotik** merienda banatuko du guraso elkarteak. **Arratsean** eskean aritu direnek afaria egingen dute Biltoki elkartearen.

Otsailak 7, larunbata

08:00 aldean hasita, gazteak etxe etxe eskean ibiliko dira, musikarien laguntzarekin. **Eguerdian** alde batetik, guraso elkarteak antolatutako bazkaria izanen da eskolako jantokian (helduen menua 38 eurotan eta haurrena 15 eurotan). Eta bertzetik, Ba-

ratzondo elkartekoak ere bazkaltzeko bilduko dira. Horrez gain, bazkalondoan, musika izanen dute. **18:00etatik 21:00etara** musika izanen da guraso elkartearen eskutik. **Ilunabarrean** gazteek zozketa egingen dute eta hiru sari banatuko dituzte.

Otsailak 12, ortzeguna

Goizean, mozorroak soinean dituztela, eskolako neska-mutikoak etxe etxe eskean ibiliko dira: Haur Hezikuntzakoak herrian barna, 1. ziklokoak Piedade eta Frain auzoetan, 2. ziklokoak Sarrola eta Berrizaun auzoetan eta 3. ziklokoak Irrisarri auzoan eta bidean diren etxeetan. **Arratsaldean** guraso elkarteak merienda prestatuko du.

